



EBAZPENA, 2016ko abuztuaren 3koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, 2016-2017 epealdiari dagokionez, Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko deialdia ebazten duena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015ko abenduaren 31ko Aginduak (EHAA, 249. 2015ko abenduaren 10), 2016-2017 urteen artean Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko deialdia egiten du.

Deialdi horretan parte hartzeko eskabideak ikusi dira.

Zientzia Politikarako zuzendaria buru delarik, Unibertsitateetako zuzendariak eta ikerketa-programen teknikari batez osatutako ebaluazio-batzordeak egindako esleipen-proposamena ikusi da, eta deialdiko 13. artikulua ezarritakoarekin bat etorrita,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ikerketa-proiektuak egiteko diru-laguntzak esleitzea, hain zuzen ere Ebazpen honen **1. eranskinean** datozenak. Bertan agertzen da proiektuetan onuradun bakoitzari dagokion dirulaguntza.

Bigarrena.- Eskaturiko puntuazioa lortu ez izateagatik uko egiten zaie gainerako eskaerak **2. eranskinean** jasotzen den moduan. Aldi berean, **3. eranskinean** hautatze prozeduratik baztertuak izan diren eskaerak eta arrazoiak jasotzen dira.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka interesdunak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Gasteiz, 2016ko abuztuaren 4a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
A.: (Apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 1.XG)  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Unibertsitateen zuzendaria